

## Euskararen Kontseilu Sektoriala

### - Eratze Bilkura -

|                            |                                                                    |
|----------------------------|--------------------------------------------------------------------|
| Data eta lekua             | 2024ko otsailaren 27an<br>IGELDO 1 gela (Udaletxea, Ijentea kalea) |
| Hasiera eta amaiera ordua: | 18:00 – 19:50                                                      |

#### **BERTARATUAK:**

LEHENDAKARITZA: Jon Insausti Kultura, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkaria

#### Talde politikoak:

PSE-EE  
EH BILDU  
PP

#### Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BATZEN  
SHOPS  
LABORAL KUTXA  
KUTXABANK  
IRUTXULOKO HITZA  
BAGERA ELKARTEA  
HEZTEN  
GIPUZKOA OSTALARITZA ELKARTEA

#### Euskara Zerbitzuko langileak:

Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburua  
Kontseiluko Idazkaria/Euskara Zerbitzuko Teknikaria

#### **EZ DIRA BERTARATU:**

Euskara Zerbitzuko Burua (ezin etorria adierazi du)  
EAJ-ko Ordezkaria (ezin etorria adierazi du)  
AEK-ko Ordezkaria (ezin etorria adierazi du)  
ELKARREKIN DONOSTIAko Ordezkaria  
BIZARRAINeko Ordezkaria

### **1.- Kontseiluko Lehendakariaren agurra eta Euskararen Kontseilu Sektoriala eratzea.**

Lehendakariak agurra eta etortzeagatik esker ona luzatu die Euskararen Kontseilu Sektorialaren eratze bilkurara etorritakoei.

Saiora etorritako bakoitzak bere burua aurkeztu du.

Bilerara etorritako kideekin quoruma badagoela ikusi ondoren Euskararen Kontseilua formalki eratutzat eman da.

### **2.- Agintaldi honetarako kontseiluaren eraketa.**

Lehendakariak Euskara Kontseiluaren helburuen irakurketari ekin dio eta Kontseilua elkarriketarako espazioa, elkarlanerako sarea egiteko eta kontseilukideen arteko harremanetarako baliagarria izan behar duela azpimarratu du. Kontseiluak udal taldeetako ordezkariak, eragile publiko zein pribatuak bildu nahi ditu, helburuak partekatzeko, iritzia plazaratzeko eta elkarlana burutzeko.

Kontseiluaren osakerari dagokionez, Euskararen Kontseilu Sektorialaren arautegiko I. tituluko I. kapituluko 5.2 artikulua araber (2015eko maiatzaren 14ko GAO), lehendakariordea Kontseiluko kide bat izango da.

### **3.- Kontseiluaren funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko azalpenak**

Kontseiluaren funtzionamenduari buruz Lehendakariak adierazi du lehenengo bilera honen ondoren, hurrengo bi bileren data jakinaraziko dituela. Jarraian bertaratutako guztiak deialdi bakoitzerako gaiak aurkeztera animatu ditu, eta gai horietan sakontzeko elkarrekin lan egitera.

### **4.- Lehendakariordea aukeratzea eta Gizarte Kontseiluko ordezkaria izendatzea**

Prozedura betetzeko xedez, bilera honetan lehendakariordea aukeratu beharra dagoela adierazi du Lehendakariak. Aurreko legegintzaldiko ordezkari berak jarraitzea proposatu du, BAGERA elkartearen ordezkaria, alegia, BAGERA elkarte euskararen normalizazioan ari den hiri mailako elkarte delako eta ikuspegi orokorra duelako.

BAGERA-ko ordezkariak adierazi du kargua onartuko lukeela.

Kontseiluak aho batez onartu du Lehendakariordetzaren titularra BAGERA-ren ordezkaria izatea.

### **5.- Batzorde iraunkorra edo lantaldeak osatzeko egokitasuna aztertzea eta erabakitzea**

Lehendakariak adierazi du, bere ustez, batzorde iraunkorra sortzea ez dela oso baliagarria, aurreko urteetako esperientzia ez baita oso eraginkorra izan.

Bertaratutako inor ez da azaldu proposamenaren aurka, eta, beraz, ez dela batzorde iraunkorrik sortuko erabaki da.

Lantaldeak sortzeari dagokionez, Lehendakariak hirira begirako Euskararen Plan Orokor berria onartu arte itxarotea proposatu du, behin planaren egitura eta diseinu berria ezagutu eta gero. Une honetan 2020-2024 aldirako Euskararen Plan Orokorra dago indarrean eta 2025eko hasieran aldi berrirako plana onartuko da.

Lehendakariak parte hartzaileak gonbidatu ditu interesgarritzat jotzen dituen lan-gaiak proposatzera. BATZEN-eko kideak adierazi du komeni dela funtzionatzeko moduren bat asmatzea jendeak gehiago parte hartu eta ekarpenak egin ditzan. Lehendakariak gaia aztertu eta proposamen bat egingo duela adierazi du.

HEZTEN-eko kideak gaineratu du batzorde iraunkorrean ekarpenak egiten zirela eta foro bat sortzea komeni dela funtzionamendua hobetzeko.

## 6.- Urteko bilera-egutegia eta gaitegia zehaztea

Euskararen Kontseilu Sektorialaren urteko bilera-egutegiari dagokionez, Lehendakariak gogorarazi du urtean gutxienez hiru bilera arrunt egingo direla (Euskararen Kontseilu Sektorialaren Erregelamenduaren 17 eta 18. artikulua diona aintzat hartuta), eta aurten egin behar diren beste bi bileren datak aurrerago proposatuko dituela

## 7.-Euskara Zerbitzuaren 2024ko urteko plana eta aurrekontu proiektua

Lehendakariak Euskara Zerbitzuaren egitura azaldu eta 2024ko aurrekontuaren datu nagusiak eman ditu.

### 2024 AURREKONTU PROIEKTUA\_ EUSKARA ZERBITZUA

#### DATU NAGUSIAK

| KONTZEPTUA                 | EUSKARA   | ITZULPENA | GUZTIRA   |
|----------------------------|-----------|-----------|-----------|
| 1. PERTSONAL GASTUA        | 1.184.753 | 298.623   | 1.483.376 |
| 2. GASTU ARRUNTAK          | 1.047.685 | 109.169   | 1.156.854 |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 807.203   | 0         | 807.203   |
| GUZTIRA                    | 3.072.872 | 404.873   | 3.477.745 |

|                                            | 2023             | 2024             |
|--------------------------------------------|------------------|------------------|
| <b>EUSKARA – aurrekontu osoa</b>           | <b>3.072.872</b> | <b>3.039.641</b> |
| Lehen kapitulua                            | 1.217.948        | 1.184.753        |
| Gastu orokorrak                            | 83.862           | 83.862           |
| Hiriko hizkuntza normalizazioa             | 1.716.232        | 1.730.196        |
| Udaleko hizkuntza normalizazioa            | 54.830           | 40.830           |
| <b>ITZULPENA – aurrekontu osoa</b>         | <b>404.873</b>   | <b>407.792</b>   |
| Lehen kapitulua                            | 295.704          | 298.623          |
| Bigarren kapitulua                         | 109.169          | 109.169          |
| <b>EUSKARA + ITZULPENA aurrekontu osoa</b> | <b>3.477.745</b> | <b>3.444.743</b> |

**Nabarmentzekoak:****- 1. kapitulua**

Lehenengo kapituluan murrizte txiki bat egon da 2023 aurrekontuarekiko eta hori liberatu sindikala zen langile batek plaza beste departamentu batean atera izanak eragin du. Gainerakoan, soldaten eguneraketak egin dira.

**Euskara aurrekontuan**

- 2. kapitulua + 4. kapitulua kontutan hartuta, iazko aurrekontu bera izan du Euskara Zerbitzuak 2024an.

Sarrera eta azalpen orokor labur horren ondoren, Euskara Zerbitzuko Hiriko Hizkuntza Normalizaziorako atalburuak 2024ko planari buruzko xehetasunak eman ditu.

BATZENeko ordezkariak aipatu du euskara ikastaroen "doakotasuna" aipatzen dela askotan, mezu hori gizarteratzen dela eta hori ez dela horrela sarritan. Ikasleek dirua aurreratu egin behar dutela eta, jasotzekotan, hurrengo urtearen amaieran bueltatzen zaiela dirua. Erakunde publikoek doakotasuna bermatu beharko lukete bere ustez.

PSEko zinegotziak bestalde, kirol zinegotzia izanik, Euskara Zerbitzuarekin bilera egitea proposatu du Euskara Zerbitzuak kirolean euskara sustatzeko dituen programen berri izateko.

PPko ordezkariak gazteentzako "Beitu" plataforma digitala sustatzeko gazteek erabili ohi dituzten ohiko internet plataformetan txertatzea proposatu du. Hiriko atalburuak erantzun dio "Beitu" plataforma horietan egon badagoela baina ez duela arrakastarik lortzen. Eduki horiek gazteen telefonoetara zuzenean bidalita lortu dutela orain arte arrakasta gehien.

**8.-Norberak lekarkeena**

BATZENeko ordezkariak mahaigaineratu du euskaldunon eskubideen urraketa eguneroko ogia dela. Gero eta joera handiagoa dagoela taberna eta komertzio berrien izena euskaraz ez jartzeko, lehen alderantziz zenean; taberna askoren menua edo karta gaztelaniaz eta ingelesez daudela bakarrik; Urgulleko zenbait udal karteletan euskara bigarren mailan ageri dela, gaztelaniaren ondoren; eta Zinemaldiko sail ofizialeko film guztiak euskaraz azpidatzita eskaini diren arren lehen-dabiziko aldiz, filmen %70ak ez dituela euskarazko azpigituluak oraindik.

San Sebastián SHOPS-eko ordezkariak, adierazi du alderdi negatiboak bakarrik aipatzeko joera dugula baina Euskara Zerbitzuak merkataritza eta ostalaritza establezimenduetara egindako bisi-tetan datu positiboak ere ageri direla eta horiek gizarteratzea komeni dela. Esaterako, "Euskaraz barra-barra" marka presentzia handia duela eta marka sustatzea komeni dela. Hiriko atalburuak sektoreko eragileekin honi buruz hitz egiteko bilera bat egingo duela adierazi du.

Bertaratutakoek adierazitakoarekin, bilera amaitutzat eman da 19:50ean.